

# Indar Berria Europar Tu voz importa

Europako  
Hauteskunde  
Programa  
CEUS  
2024

Indar Berria  
Europar  **eaj**  
**pnv**



# Indar Berria European Tu voz importa



# Europar batzen eta interesa pizten duten aniztasuna, hurbiltasuna eta parte-hartzea

EAJ-PNV Europa Solidarioaren Aldeko Koalizioan (CEUS, gaztelaniazko sigletan) aurkeztuko da Europako hauteskundeetara, **EUROPAREKIKO KONPROMISOA ADIERAZTEN DUTEN** 160 proposamen garatzeko:

## Europa gero eta indartsuagoa askotarikoagoa

Bake-eragilea eta munduan giza eskubideen errespetuaren sustatzailea, agente global gisa. Erakunde multilateraletan oinarrituriko nazioarteko harremanak izango dituen Batasuna, balio eta arau lotesle unibertsaletan funtsaturik jarduten duena. Konbultsio eta ziurgabetasun globalen aurrean, segurtasuna eta babesa eskainiko dizkigun Europa. Irmo jokatu duena nazioarteko zuzenbide-urraketen aurka, hala nola Errusiak Ukrainan eta Israelek Gazan egiten dituztenen kontra. Disuasio-gaitasuna izango duena, aurre egiteko gure lehiakide globalek babesturiko injerentzian eta zibererasoetan oinarritutako eraso konbentzionalei zein hibridoiei. Finean, mundu zabalean eragile politiko izango den Europa.

## Pertsonekin eta demokraziarekin

Bere aniztasun osoan elkarturiko Europa, barnean hartzen dituen estatutik gabeko nazioetako hizkuntzak, erakundeak eta kulturak eskaintzen dituzten herriak. Euskararen, katalanaren eta galegoaren ofizialtasuna aldarrikatuko dugu Europako Parlamentuan. Elkarrizketa egituratua eta iraunkorra babesten dugu herritarrekin, betiere Europaren Etorkizunerako Konferentziaren ondorioekin lerrokatuta. Proposamen horien bidez, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak aldatzea defendatuko dugu, eta, horrekin batera, demokraziarekin, bakearekin eta eskubideekin erantzuten duen zabalkunde-politika bat aldeztuko dugu. Demokrazia berrituko dugu, populismoari eta autoritarismoari aurre eginez.

## Gure ongizateaz arduratzen den europa. Lehiakorragoa, sozialagoa eta jasangarriagoa

Ongizatea lortzeko eta gure gizarte-eredua indartzeko, erabakigarriak dira gure ekonomiaren produktibitatea eta lehiakortasuna. Ongizatea lortzeko eta gure gizarte-eredua indartzeko, erabakigarriak dira gure ekonomiaren produktibitatea eta lehiakortasuna. Justizia soziala da Batasunaren jasangarritasunaren abiapuntua. Behartsuenei arreta emateko estandare europarra bultzatzen dugu, krisi globalek sortutako larrialdiei erantzuteko alarma-mekanismoen bitartez. Aurre egiten diogu etxebizitza eskuratzea zailtzen duen espekulazioari, kontuan izanik pobrezia energetikoa eta porrot soziala eragiten dituela. Talentuaren eta elkarrizketa sozialaren aldeko apustua egiten dugu, eta berdintasuna sustatzen dugu, zentzurik zabalenean eta modu transbertsalean, gure lehiakortasunaren gako gisa. Eskualdeak eta hiriak integratzen ditugu migrazio-politikak erabakitzeko prozesuetan.

## Eraldatzailea izango dena

Batasunaren subiranotasun estrategikoaren alde egiten dugu, ardatz gisa harturik herritarrak babestea, gure kanpo-mendekotasunak ezabatzea, Europa berrindustrializatzea eta gure elikadura-segurtasuna bermatzea. Bidezko trantsizio bat lortzen saiatuko gara, isurpenetan neutroa izango den eta neutraltasun teknologikoan oinarritutako den produkzio-sistema bat lortzeko, betiere ukituriko sektoreei lagunduz eta haiek diotena entzunez. Buru-belarri lan egingo dugu bestelako mugikortasun-eredu adimentsu eta integratu baten alde, baita kontsumo jasangarriaren alde ere.





# 1

---

**Pertsonak ardatz  
dituen eta haien  
aniztasuna  
osorik biltzen  
duen Batasuna  
indartzea eta  
defendatzea**

---



COVID-19ak eragindako pandemiak aurrerapauso handia ekarri du Europar Batasunaren birfundazioan. Erkidegoak 2008ko finantza-krisiari emandako erantzunaren ezaugarri izan zen austeritatearen ordez, integrazio-prozesu interesgarri bat gauzatu da oraingoan. Haren inflexio-puntu nagusia zera izan da, osasunean oinarrituriko Europa garatu duela; prozesu hark txertoa lortzera eta txertaketa-kanpainak sustatzera eraman zuen, bai eta Suspertze eta Erresilientzia Plana onestea ahalbidetu ere.

Europako estatuak elkarrekin zorpetzea erabaki dute, elkartasunez, ez pandemiak sorturiko krisialdietatik elkarrekin ateratzeko bakarrik, baizik eta gure produkzio-sistema eraldatzeko, gure kanpo-mendekotasunekiko zaurgarritasun txikiagoa izateko, sozialki eta ingurumenaren aldetik jasagarriago bilakatzeko eta ordena globalean lehiakorrago jarduteko. Egikaritze-modu horri esker, europar asko jabetu dira berriro ere Batasunaren erabilgarritasunaz, eta, bide horretatik, berreskuratu egin dute Europako erakundeekiko fedea.

Errusiak Ukrainaren aurka probokaziok jaso eta justifikatu gabe eginiko eraso-gerrak berretsi egin du jarduera-ildo komun hori; hala, aho batez onetsi da inoiz ikusi gabeko zigor-sorta bat, eta laguntza militar, ekonomiko eta politikoa eman zaio Errusiako armadak erasotako herrialdeari. Horretaz gainera, agerian geratu dira panorama globalaren aldaketa geoestrategikoak, eta ikusten da beharrezkoa dela Europar erantzukizun gehiago hartzea defentsaren eta segurtasunaren arloan.

Egoera horretan, Batasunak bizkortu egin behar du munduan bake-eragile izateko apustua; arauetan oinarritutako nazioarteko harremanak aldarrikatu behar ditu, eta diplomaziaren, elkarrizketaren eta negoziazioaren aldeko apustua egin behar du, gatazkak saihesteko. Eginkizun horrek eskatzen duen legitimitateak, gainera, behartu egiten du zorrotz salatzea nazioarteko legediaren urraketa guztiak — gaur egun Israelgo Gobernuak Gazan egiten dituenak, kasu—, eta beharrezkotzat jotzen da, gainera, horiei aurre egiteko eskura dauden tresna diplomatiko guztiekin jardutea. Bitarteko horien artean sartzen dira, konparazio baterako, jarduera horien erantzuleen aurkako zehapenak eta elkartze-akordioak etetea.

Baina, horretaz gainera, Batasunak “berriro begiratu behar dio bere buruari”, integrazioarako urrats erabakigarri hori sendotzeko. Europa Solidarioaren Aldeko Koalizioak berrikuntza sozial, produktibo eta instituzionalaren aldeko apustua egiten du hausnarketa hori egiteko, egitura instituzionalean behar-beharrezkoa dugun birdiseinu horri heltzeko, munduan bizi den integrazio-proiekturik anbiziotsuena eraikitzen jarraitzeko. Proiektu horrek, baina, ez du galtzen harremana oinarrian dituen balioekin, eta, hori gutxi balitz, gure Batasunaren erresilientzia-funts eta nortasun-ikur bihurtzen ditu, gure lehiakide globalei eta bizikidetzak eta askatasun-ereduaren alternatibei aurre egiteko.

## **Erresilientzia eta subiranotasun estrategikoa mendekotasunaren aurrean eta justizia soziala**

---

Aldaketa geoestrategikoen, gainera, behartu egiten dute tonuari eta batasunari eustea, gure lehiakortasuna oztopatzen duten faktore endogenoak gainditzeko. Lehia globala sekulakoa da, eta guztiok ez dugu jokatzeko arau bereberekin. Amerikako Estatu Batuetako Inflazioa Murrizteko Legeak, hornidura-kateen gaineko presioak, gainproduktzioak, Txinak merkatuetan baliatzen dituen produkzio-kostu apaleko esportazioek eta bestelako mehatxuek behartu egiten dute energiaren jokatzera Merkatuaren Mundu Erakundearen eta beste erakunde multilateral batzuetan, merkataritza globalaren funtzionamendu bidezkoa eta orekatua hausten duen dumpinga amaitzeko.

Halaber, aldaketak, hautabideak eta berrikuntza planteatu behar ditugu trantsizio-prozesuetan, mende honetako berrogeita hamarreko hamarkadan emisioetan neutroa izango den ekonomiarantz bide egiteko. Prozesu horrek laburbiltzen ditu klima-aldaketaren aurrean ditugun erreazio-politikak; kontuan izan behar dira haren ondorio agerikoak, zeinak muturreko fenomeno gero eta ohikoago gisa agertzen baitira. Erronka horri ideologiaren hesien atzetik heltzeko tentazioen aurrean, neutraltasun teknologikoak, zientziak eta inplikaturiko sektoreekin dugun lankidetzak erakusten digute trantsizio bidezko baterantzko biderik seguruenak. Ildo horretan, iraultza digitala da klima-aldaketa arintzeko katalizatzaile eta erreminta nagusia. Bide horretan, ekintzailtza-esparruak sustatzen ditugu, hala nola gizarte-ekonomia edo enpresa-eredu inklusiboak; izan ere, hala sortuko ditugu talentu-aliantzak, eta hala indartuko ditugu erantzukizun korporatiboa eta behar bezalako ardura hirugarren herrialdeetan lan egiten dugunean.

Proposamen hori behin betiko ekarpen gisa ulertzen dugu, enpleguak bizi-proiektu duin eta jasagarri bilaka daitezkeen, lurraldean erroak ezarrita. Prestakuntza prediktiboko prozesuak sustatzeko ekarpen gisa, enplegarritasuna eta lanpostu-estaldura bermatzeko alor berrietan, hala nola deskarbonizazioari eta digitalizazioari lotutako lanbide berrietan, baita duela urte gutxi bigarren mailako lehengaien hondakintzat hartzen zirenak bihurtzen diharduten prozesuetan ere. Bide horretatik, garapen-eredu jasagarri eta erresilienteak sortuko ditugu, gai izango direnak gizarte-justizia bultzatzeko, bidezko trantsizioaren kostuak finantzatzeko eta marjinazioa eta pobrezia-arriskua desagerrarazteko indartu behar diren elkartasun-mekanismoak finantzatzeko.

Elkartasun hori oso garrantzitsua da Batasunaren jasagarritasunerako, klima- eta ingurumen-politikei begira, baina baita gure garapen- eta mugikortasun-paradigmak aldatzeko ere. Porrot sozial sakonak

dituzten gizarteek, bidegabeak izateaz gainera, esposizio-maila handiagoa dute neokontserbadurismo global eta erreakzionarioak martxan jarritako estrategien aurrean, kontuan izanik hamarkada bat baino gehiago daramatela ezagutzen dugun demokrazia-eredua amaitu nahirik.

Ondorioz, ezin dugu ahaztu trantsizio konplexu horrek erabat aldatu duela lan-merkatua, eta milaka pertsona dagoela birkokatu beharra beste produkzio-logika eta diziplina profesional batzuetan. Gainera, Errusiak Ukrainan eragindako tentsio koiunturalek inflazio-gertakariak sortu dituzte; horiek kalte objektiboa egiten diote pertsonen bizitzari, eta tentsioa eta ziurgabetasuna sorrarazten dituzte. Hori horrela, lehentasunezkoa da egoera kalteberenean daudenei laguntzeko politika aktiboen gutxieneko estandar bat definitzea eta gauzatzea, justizia sozialetik abiatzen baita gure bizikidetzaren proiektuaren jasagarritasuna. Izan ere, apustu horrek sakondu egiten du gure Batasunaren sorrerako balioetan.

## Gobernantza, berrikuntza politikoa eta lidergo berriak

Europa Solidarioaren Aldeko Koalizio (CEUS) honetako kideok bat gatoz diagnostiko horrekin, eta uste dugu egoera horretan Batasunaren “benetako birsorkuntza” bultzatzen jarraitu behar dela; aurrerapen erabakigarri bat behar da integrazio-prozesuan. Horri dagokionez, Suspertze eta Erresilientzia Plana abian jartzea izan da inflexio-puntu garrantzitsua. Aurrerapen horrek Erkidegoko erakundeek eta haien gobernantza-ereduaren erreforma sakonean egon behar du oinarrituta.

Europa Solidarioaren Aldeko Koalizioan uste dugu nortasun kultural, sozial eta ekonomiko handiko gizarteak ordezkatzea aktibo bat dela prozesu horri berrikuntza politikoa sendoa emateko. Orain arte, tokian tokiko, estatuko eta Europako erakundeek arteko elkarrizketaren poderioz iraun duten nazionalitateak eta eskualdeak biltzen ditugu. Errealitate horiek lankidetzaren mekanismoak abiarazi dituzte, hala nola “espezializazio adimenduna”, eta, hala, hautsi egin dira estatuen arteko lankidetzaren agertzen ziren mugak. Euroeskualdeetan eta eskualde-elkarteetan jarduten dute orpoz orpo lankidetzan, eta erakusten dute badutela gaitasuna aniztasuna batzeko. Nortasun eta arazo bereziak dituzten gizarteak dira, hala nola uharteak edo eskualde ultraperiferikoak. Esate baterako, estatutik gabeko nazioen errealitateek —zeinaren hizkuntzak, kulturak eta nortasunak bizirik jarraitzen baitute— elkarrekin hizketan segitzen dute, eta lankidetzaren prozesu eta -loturak eraikitzen dituzte bi estatu kideetako mugaz haraindiko lurraldeetan eta

konstituzio beraren pean bildutako eskualdeen artean. Gure koalizioak ekarpena egin nahi du Batasunaren gobernantza berriari buruzko eztabaidan, eta, horretarako, gogotik baliatuko dugu hurbiltasunak eta herritarrekin etengabe dugun solaskidetzak ematen digun jakintza; era berean, horretara bideratuko ditugu askotariko lurraldeetako hobekuntza-aukeren, indarguneen eta ahulezien ezagutza sakonak, bai eta mugak kudeatzetik inoiz bizi ez izanak ematen digun abantaila ere. Horregatik, Europa Solidarioaren Aldeko Koalizioak benetako berrikuntza politikoko prozesu bat bultzatzen du, eta sakondu egiten du Europaren Etorkizunerako Konferentziaren emaitzetan, Batasunaren gobernantza-mekanismoak modernizatzeko. Helburua da hurbiltasuna, irekitasuna, gardentasuna eta partaidetza gehitzea, bai eta XXI. mendeko gizarte irekiekin koherenteak diren erabaki-prozesuak ere. Azken batean, egitura instituzionalak, kultura politikoa eta elkarlanerako ohiturak eskaintzen ditugu, elkarrizketa soziala biltzen dutenak eta estatuen egitura tradizionalak baino gehiago eta hobeto batzen dutenak; proposatzen ditugun egitura horiek eredu izan daitezke —eta izan behar dute— Europa integratuago eta federalago baterantz eboluzionatzeko.

Elkarrizketa-prozesu horiek Batasunaren berpizkundean aplikatuz, Europako ongizate-ereduak sendotu egingo du pobrezia- eta gizarte-bazterkeriako arriskua desagerrarazteko gaitasuna, hobeto gidatuko du klima-aldaketaren aurkako borroka, eta ezabatu egingo ditu segurtasunari eginiko mehatxuak eta halakoak sortzen dituzten elementuak. Finean, Europa kohesio-natuago eta solidarioago bat sortuko du. Nazio, kultura eta hizkuntza ugari ikuspegia oinarri harturik lan egiten dugunok egoera ezin hobean gaude aniztasuna balioesteko eta diskriminazio-prozesuak identifikatzeko eta zuzentzeko. Horregatik, elkarrizketa soziala, aniztasunarekiko errespetua eta pluralismoa aldeztu ditugu, bai eta gertaeretan eta iritzi-trukean oinarritutako kultura politikoa berri bat ere.

Uko egiten diogu “aurkari politikoa” kontzeptuaren ordez “etsai” kontzeptua erabiltzeari. Hortzak erakusten dizkiegu eztabaida publikoaren degradazioa, gezurra, polarizazioa eta eraso pertsonalak bultzatzen dituzten tresnei, zeinei garrantzi berezia ematen baitiete algoritmo batzuek sare sozialetan. Halaber, sakondu egin nahi dugu jakintza eskuratzeko eta eztabaida publikoa sozializatzeko eredu berriei buruzko ikerketan, eta, hala, demokraziaren zerbitzura jarri. Horixe baita adimen artifizialaren erabilera egokiarekin bultzatu ditzakegun aplikazio positibo ugarietako bat, betiere Europar Batasunaren aldeko inbertsioa balioetan oinarrituriko ikuspegi batetik eginik.

## 5.0 aniztasunean elkarturik

---

Europar Batasunaren “Aniztasunean elkarturik” leloa antidoto eraginkorra izan da tentazio horien aurka, eta halaxe jarraitu behar du izaten. Berrikuntza eta esperientzia ekarri nahi ditugu, hari esker, lelo horren 5.0 bertsioak, gizarte digitalaren jakintza eta ekintza politikoko paradigmatara egokiturik, aurrerantzean ere jarrai dezan elkarrizketa eta elkar ulertzea aldeztuz, “besteak” aintzatesten, duintasun eta eskubide berberak dituzten parekidetzat. Aniztasunean bat egiteak bakerako eta bizikidetzarako eragile eraginkor izaten jarraitzen du. Horregatik, Europa erabilgarri eta hurbilean sakontzeko konpromisoa hartzen dugu, Europa eraikitzeko prozesuaren erdigunean jarrita pertsonak eta herriak, herritar guztiak, aintzakotzat harturik betiere Europa osatzen duten eta haren aniztasunaren parte diren nazio guztiak.

Beharrezkoa da XIX. eta XX. mendeko identitateari eta nazioari buruzko kontzeptu politikoak berritzea, eta horiek eboluzioaren eta bizikidetzaren adibide gisa erabiltzea, modernitatearen eta beste gobernantza-eredu batzuetarako bilakaeraren erakusgarri gisa. Hori berrikuntza-estimulu bat da. Ez du ahultzen Batasuna, baizik eta sakondu eta indartu egiten ditu sorrerako balioak, oso lotuta baitago demokraziaren kalitatearekin eta zuzenbide-estatuaren sendotasun eta funtzionamendu onarekin. Horregatik, gure gizarteak nazio, kolektibo edo errealitate politiko, instituzional eta kultural gisa egiaz aitortzearen alde egiten dugu, zein bere egitate bereizgarriekin.

Horiexek izan dira, gaur arte, gure Batasuna sortu zuen artikulazio sozial, ekonomiko eta politikoko prozesuaren bereizgarriak: Batasun horretan bilduriko herri, lurralde, tradizio instituzional eta kultura desberdinak bata bestearekin jostea. Gure proposamenak jarraitu egiten dio sorrera-ideia horri, sakondu egiten du muin horretan.

Gure ikuspegi berritzaileak osotasun politikoa du abiapuntu, Europako eta nazioarteko gainerako eragileen baldintza berberetan, eta haren jatorrian konbikzio sakon bat dago; hau da, Europak estatuen gaineratik dagoen errealitate sozial, politiko eta kultural bat izan behar duela. Batasun ekonomiko eta monetario soilaren aldeko apustua baino askoz ere gehiago egiten dugu. Gure etorkizunak lotura estua du Europako erakunde egiazki demokratiko eta gardenekin, zeinek konpromiso irmoa izan behar baitute europar guztion ongizatearekin.

Gure koalizioak ideia horiek babesten ditu Europako Alderdi Demokratikak azken urteotan garatu duen ondarean; izan ere, Bilboko Adierazpenean jada hasiak ginen berrikuntza politikoko prozesu horiek bultzatzen, gainditu ahal izateko Europako politikagintzaren eta herritarren arteko urruntzea, erakundearen ordezkariak

demokratikoaren gabezia larria eta askotariko erresistentziak —hala nola estatuen nazionalismoa eta estatu-nazio kontzeptu tradizionalarekin lotutako kultura instituzionala aldatzearen ingurukoak—. Lan-ildo hori fintzen joan da Europako formazio horren ondoz ondoko biltzarretan, eta, oraingoz, aurtengo martxoaren 8an Florentzian aurkeztutako manifestuarekin amaitu da. Akordio berri hori sinaturik, Europa Solidarioaren Aldeko Koalizioan sartuta gauden alderdiok apustu garbia egiten dugu: Europar erakunde demokratikoak, gardenak, eraginkorrak eta gertukoak izatea, Europako aniztasun nazional, sozial eta politikoak ordezkatzeko dituztenak.





# 2

## Helburuak eta konpromisoak





Premisa horietatik abiatuta, helburu hauetan oinarritua da Europako hurrengo legegintzaldirako gure lan-programa.

## Batasunaren berpizkundera

---

Batasunak aurreko legealdian bizi izan duen integrazioan sakonduko dugu, eta printzipio hauetan oinarrituko dugu "Batasunaren berpizkundera": askatasuna, berdintasuna, demokrazia, zuzenbide-estatua, giza eskubideak, lankidetzak, elkartasuna, segurtasuna eta erantzukizuna. Europa indartsu bat, plurala eta askotarikoa, egitate bereizgarriak dituzten eta nortasun eta onarpen politikorako bokazio argia duten herri eta nazioetan integratutako herritarrez osatua, baita aitoren hori eragotzi behar ez duten estatuez ere.

## Politika pertsonen zerbitzura

---

Europako ongizate-ereduaren alde egiten dugu, pertsonen eta gizartearen zerbitzura jarritako politikaren alde; politika horrek gai izan behar du garapen- eta hazkunde-paradigmak eraldatzeko eta bidezko harreman komertzial eta ekonomikoak bultzatzeko. Mundu multilateral berriaren eragile gisa jardungo duen Europa, nazioarteko harreman baketsuak sustatuko dituena. Segurtasunaren eta defentsaren alorrean, aldaketa geostrategikoko sakonei aurre egiteko beharrezko egiturak izango dituena, kontuan izanik aldaketa horiek XXI. mende hasieran ezagutzen genuenaren oso bestelako panorama globala azaleratu dutela.

## Subiranotasun estrategikoa

---

Europako ekonomia eraldatzearen eta birbideratzearen aldeko fedea eta konpromisoa ditugu, baita energiaren merkatu bakarraren aldekoa ere, legegintzaldi honetan onetsitako erreformak gauzatuko dituena; era berean, finantza-merkatu globalen erreforma aldeztu dugu, ekonomia suspertzeko, hazkunde eta garapen ekonomikorako eredu berri bat lortzeko, eta enplegu berriak, aukera gehiago, bizi-kalitate handiagoa, gizarte-kohesioa eta ongizatea lortu ahal izateko. Horretarako, Europar Batasunaren barruan tresna ekonomikoak indartzeko planteatzen diren ekimen guztiak babestuko eta bultzatuko ditugu; esate baterako, Batasunaren subiranotasun estrategikoa eta elikagaien segurtasuna, edo are gure mendekotasunak murriztea. Izan ere, erabakigarria da lehiakortasun globalaren erronkari aurre egiteko.



**3**

---

**160 Proposamen  
Batasunaren  
berpizkundera  
sendotzeko**

---



Europako Parlamentuko lan-programa batean azaldu-tako helburuak gauzatzeko, alderdi politiko sinatzai-leok jardun-ildo hauekin dugun konpromisoa adieraz-ten dugu:

### **3.1. Gure ongizateaz arduratuko den batasuna. Sozialagoa eta jasangarriagoa**

Bat gatoz Europa sozialaren etorkizunari buruz La Hul-pen egindako adierazpenaren oinarriko printzipioekin. Sustatzen dugun babes-ereduaren erdigunean daude guztiontzako aukera-berdintasuna, kalitatezko enple-guak eta lan-baldintza bidezkoak bermatzea, pobrezia eta desberdintasunak murriztea, eta klima-neutralta-sunerako trantsizio bidezkoa eta ekitatiboa sustatzea. Horri dagokionez, erreferentziatzat ditugu Europar Batasuneko Oinarriko Eskubideen Gutuna, Europako Kontseiluaren Europako Gutun Soziala eta Lanaren Na-zioarteko Erakundearen Mendeurrenako Adierazpena lanaren etorkizunari buruz. Hauek dira helburu horiek lortzeko gure proposamenak:

#### **Enplegua eta ongizatea**

**1 /** Pertsonen ongizatearen, arretaren eta bizi-kalita-tearen baldintzak hobetzea, esparru gisa harturik gi-zarte-kohesioaren, Europako ongizate-ereduaren eta pobrezia- eta gizarte-bazterkeriako egoerak desage-rraraztearen aldeko apustua, horiek baitira Europako Gutun Sozialaren oinarria.

**2 /** Gutxieneko babes-esparru bat ezartzea estatu kide guztietarako, gizarte-segurantzako sistemen ar-teko mugikortasuna errazteko eta barne-merkatuan dumping asoziala saihesteko.

**3 /** Truke digitala eta estatu kideetako gizarte-segu-rantzako sistemen digitalizazioaren ikuspegi integra-tua bultzatzea, eskubideen eramangarritasuna erraz-teko.

**4 /** Gizarte Zutabearen 20 printzipioak aplikatzea, kontuan hartuta askotariko testuinguru sozioekonomi-koak, sistema nazionalen aniztasuna, eta lan-munduko ordezkarrien eginkizuna eta autonomia, guztia ere sub-sidiaritasun-printzipioa aplikatuz prozesu horretan.

**5 /** Gizarte-aurreikuspeneko eta errenta bermatzeko sistemei buruzko Erkidegoaren gomendioak garatzea-ren alde egitea, bazterkeria eta pobrezia desagerra-razteko. Pertsonak lan-munduan berriro txertatzea eta egoera kalteberan dauden pertsonentzako arreta-tarte espezifikoa diseinatzea.

**6 /** Langabezia sortzen duten larrialdi-egoerei laguntzeko mekanismo egonkor bat txertatzea, pandemian esta-tu kideei laguntzeko funtzionatu zuen SURE mekanis-

moaren funtzionamenduarekin izaniko ikasbideak oi-narri gisa hartuta.

**7 /** Europako legegintza-mekanismo guztiak garatzea, hala nola Europako lan-agintaritzza, prekarietateari aurre egiteko, kontratazio-jardunbide txarrak ezabatze-ko eta lan-baldintzak hobetzeko. Estatu kideetako lan-aginta-ritzen eskumenak eta gaitasunak indartzea.

**8 /** Lanaren eta familiaren arteko kontziliazioa sustatzea, betiere lehen haurtzaroko hezkuntzari eta arretari buruzko Bartzelonako Adierazpenaren ibilbide-orriari eta helburuei eutsiz. Gutxieneko inbertsio-baldintzak ezartzea haurrak artatzeko zerbitzuetan, kontuan izanik guztientzat irisgarriak, eskuragarriak eta kalitate handikoak izango direla.

**9 /** Zaintzailearen Europako Estatutu bat egitea, kontziliazioa ahalbidetzen duten zerbitzu guztietan lan egiten duten profesionalen prestakuntza eta lan-baldintza bidezkoak bermatuz, bai adingabeen arretan, bai adinekoen zaintzan.

**10 /** Laneko arriskuen prebentzioaren katalogoan ja-sotzea osasun mentalarekin lotutako alderdi psiko-sozialak, bai eta horiek jarduteko baldintzekin duten lotura —bereziki esparru digitalean—. Substantzia arriskutsuen esposizioarekin lotutako legeria berri-kustea, eta lan-ingurunean jazarpen-modalitate guz-tiak prebenitzeko neurriak indartzea.

**11 /** Lan-eskubideen katalogoa enplegu- eta ekintzai-letza-modu berrien arabera eguneratzea, eta telela-nera eta halako lan-jarduerara egokitzea. Deskone-xiorako eskubidea arautzea eta Langile Digitalaren Estatutua onestea.

**12 /** Zutabe sozialaren jardunari eta betetzeari buruzko adierazleak txertatzea Europako sei hilekoan, balizko elkarganatzeko-arrakalak identifikatzeko, eta bermatze-ko, orobat, betetzen direla prestakuntzaren, gaitasu-nen, enpleguaren eta pobrezia murriztearen alorrean 2030erako ezarritako helburuak.

**13 /** Talentuaren Europako Behatoki baten sorkuntza aztertzea, hezkuntza-berrikuntzaren arloan jardunbide egokiak identifikatzeko eta trukatzeko, bai eta ezagutza-hutsuneak identifikatzeko eta horiek konpontzeko proposamenak egiteko ere. Gaitasunen Europako urtea ospatzetik eratorritako ikaskizunak inplementatzea. Lan-merkatuan berriro ere txertatzeko eta integratzeko ibilbide pertsonalizatuak sustatzea.

**14 /** Gazte Bermearen Europako sistema indartzea, eta, horretarako, eskualdeko eta tokian tokiko parte-hartzea bultzatzea haren kudeaketan. Estatu kideek gazteei lan-merkatuan sartzen laguntzeko erabiltzen dituzten sistemetako lan-eskubideak berrikustea, hobetzea eta bermatzea, eta, ildo horretan, arreta berezia eskaintzea bekadunei, ikertzaileei, apendiziei

edo laneratzeko kontratu-figurei. Laneratze-prozesuak sustatzea, errelebo-kontratua eta halako bermeak baliatuz.

**15 /** “StartEU” programa sortzea, gazteei bitzitza aktiboan sartzen laguntzeko. Finantza-baliabideak eta baliabide logistikoak emateko laguntza-ildoak sortzea, ikasketetan, enpresak sortzean eta etxebizitza bilatzean dituzten helburuak lortzen laguntzeko.

**16 /** Erasmus eta tankera horretako truke-programa guztiak indartzea, gazteen bizikidetza eta lan akademiko eta profesionala ingurune eleaniztunetan sustatzeko. Kanpaina espezifikoak prestatzea, eta, haien bitartez, Elkartasunerako Europako Kidegoa ez ezik Batasunaren balioak ekintza bihurtzeko beste boluntarioria-ekimen batzuk ere hedatzea.

## Ekonomia soziala eta elkarrizketa soziala

**17 /** Elkarrizketa sozialaren, gizarte-ekintzailtzaren eta enpresa-eredu inklusiboaren alde egitea, Europako eredu soziala, demokrazia, bizikidetza eta justizia soziala indartzeko tresna gisa. Elkarrizketa sozialeko prozesuetatik eratorritako akordioak babestea eta balioestea.

**18 /** Ekonomia sozialari buruzko printzipioak aplikatzearen alde egitea, ekintzailtzarako eta enplegu jasagarriak sortzeko tresna gisa. Donostiako Manifestuan eta Europar Batasuneko Ekonomia Sozialerako Liejako Ibilbide Orrian ekonomia sozialari buruz jasotako printzipioak ekintza operatibo bihurtzea.

**19 /** Kooperatibek Europar Batasunaren lehia-politika-aren barruan duten funtzio soziala aitortzea, batez ere estatu-laguntzei eta lan-eskuaren intentsitate handiko sektoreei buruzko araudian daukatena. Europako Parlamentuan ekonomia sozialari buruzko parlamentu-taldearen babesa eta iraupena sustatzea.

**20 /** Estatu kideak adoretzea kooperatibei sektore guztietan jarduteko aukera emango dien legeria onets dezaten —baita interes orokorreko zerbitzuetan ere—, eta, horretarako, kooperatiba-mota berriak arautzea, hala nola alderdi anitzekoak, plataforma kooperatiboak edo langile autonomoen kooperatibak. Langileek enpresak eskuratu ahal izateko esparru-baldintzak bermatzea, lege- eta finantza-laguntza barnean harturik.

**21 /** Kooperatibei eta gizarte-ekintzailtzari buruzko test bat abian jartzea, ETEei buruzkoaren antzekoa, legeriak sektorean duen inpaktua ebaluatzeko, “lehen-bizi eskala txikian pentsatzeko” printzipioari jarraikiz, Negozio Txikien Legean formulatzen den bezala.

**22 /** Mekanismo egituratuak ezartzea elkarrizketa soziala EBko erabaki-prozesuetan txertatzeko, be-

reziki trantsizio digitalarekin eta klima-politikekin lotutakoetan.

## Etxebizitza eta gazteak

**23 /** Europa osorako proposamen arautzaileak ez ezik behatoki bat ere planteatzea, etxebizitza eskuratzeko arazoari aurre egingo dioten jardunbide onenak identifikatzeko, kontuan izanik estatu kide askotan gazteen emantzipazioa blokeatzen dutela eta herritar asko kanporatu egiten dituztela beren hirietako erdigunetik.

**24 /** La Hulpeko Adierazpenaren “lehenik eta behin etxebizitza” ikuspegia babestea, eta, horretarako, estatu kideetako agintari eskudunekin lankidetzan jardutea, etxebizitza sozial irisgarri, efiziente, ekologiko eta eskuragarria sustatuko duten programak garatzeko, eta, ildo horretan, tokian tokiko berezitasunetara egokitutako ekintzak abian jar daitezzen sustatzea.

**25 /** Bata bestearekin lotzea, batetik, eraikinen energia-efizientzia sustatzeko Europako programak, eta, bestetik, etxebizitza babestuen sustapen publikoa eta higiezin merkatuko prezio tasatua dinamizatze-ko ekintzak. Ikuspegi hori Europako Bauhaus berrian txertatzea.

**26 /** Eraikuntzaren sektorean berrikuntza sustatzea eta etxebizitza eskuratzeko eta gozatzeko formula alternatiboen segurtasun juridikoa bermatzea. Gai horri buruzko prestakuntza-moduluak gizarte-laguntzan lan egiten duten pertsonen hezkuntzan eta prestakuntzan sar daitezzen proposatzea.

**27 /** Etxegabetasunaren aurkako Europako Plataforma babestea.

## Osasunaren Europa

**28 /** Osasunaren Europa bultzatzea, jasagarriagoak izateko eta osasunaren alorreko big dataren koordinazioa eta kudeaketa hobetzeko —prebentzioa areagotuko duen mekanismo gisa—; mehatxu globalen aurreko jarduna eta ikerketa koordinatua eta kolaboratiboa garatzea, bai eta sektore horretako berrikuntza hobetzea ere.

**29 /** Generikoen eta osasun-laguntzarako oinarrizko makinaren Europako ekoizpena berreskuratzea, premia biziko sendagaien hornidura-arazoak murrizteko eta desagerrarazteko.

**30 /** Europako behatoki bat sustatzea, helburu gisa harturik estatu kideetan osasun-arretako sistemak kudeatzeko eskumena duten agintarien arteko lankidetza bultzatzea, zeinak deszentralizaturik jardungo baitu Batasuneko estatu gehienetan.

**31 /** Prebentzio-ikuspegia eta arreta-egituren bilakaera sustatzea, gaixo kronikoei eta iraupen luzeko zainketei dagokienez, eta, ildo horretan, laguntza-sistemak bilakaera demografikora eta zahartzera egokitzea.

**32 /** Osasunaren arloko titulazioen errekonozimenduan eta konbergentzia progresiboan aurrera egitea, eta sektorean bokazioak sustatzea, Batasuneko profesionalen eskasia arintzeko eta hirugarren herrialdeetako profesionalen deskapitalizazioa saihesteko.

**33 /** Ikuspegi europarra sustatzea ikerketa koordinatua behar duten gaixotasun arraroei arreta emateko estrategietarako, eta programa espezifikoko antolatzea zaintzaileei arreta, zaintza eta laguntza emateko, batez ere beren bizitza, lana eta zaintzaile-lana kontziliatu ezin dituzten familia-inguruneko pertsonei laguntza bideraturik. Europako berrikuntza-programetan sartzea desgaitasunetara egokituta sortzen dituzten garapen teknologikoei ematen zaien laguntza.

**34 /** Minbiziaren aurkako Europako Estrategia eta prebentzio kardiobaskularreko programak indartzea, eta azken horietan genero-ikuspegia txertatzea.

## Segurtasuna eta oinarrizko eskubideak

**35 /** Giza eskubideak, demokrazia eta Europako askatasun- eta justizia-esparrua defendatzea, delinkuentziari eta erakunde kriminalei aurre egiteko eskura dauden baliabideak optimizatzeko. Generoak, arrazak, erlijioak edo ideologiak eragindako diskriminazioak desagerraraztea, Europar Batasunaren esparru politikoaren barruan zein kanpoan.

**36 /** Europako ikusmoldearekin heltzea narkotrafikoko erakundeen aurkako borrokari, haien infiltrazio progresiboari eta Batasunean eragiten duten delinkuentzia-indizeen hazkundeari, kontuan harturik delituen larritasuna eta indarkeria eta sorrarazten duten segurtasun-ezaren pertzepzioa. Gai hori nazioarteko terrorismoaren maila bereko lehentasunztat hartzea eta bi fenomenoaren arteko loturak aztertzea.

**37 /** Justiziaren kalitateari buruzko Europako adierazle taula indartzea eta dagozkion zehapen-mekanismoak aktibatzea, estatu-botere horren independentzia faltarekin lotutako zuzenbide-estatuaren

kalitatearen degradazioei aurre egiteko. Elkarrizketa egituratuaren aukera guztiak eta bitartekaritza-mekanismoak aztertzea, eta, hala, anomaliak zuzendu ahal izatea —Espainiaren kasuan, esaterako, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia berritzeari eragiten diona—.

**38 /** Kazetariak babestea, dela erasoetatik, dela jazarpen-indarkeriaren bidez edo enplegu-baldintzak prekarizatzearen bidez bizi dituzten larderia- eta presio-ekintzetatik. Kazetaritza-lanbidearen estatutu bat definitzea eta aplikatzea Europan, iturriak babesteko eta kontzientzia-klausula aplikatzeko. Komunikabideen sektorean kontzentrazioa eta monopolio-praktikak prebenitzea eta saihestea, eta, horretarako, komunikabideen jabetzaren gardentasuna babestea.

## Berdintasuna, aniztasuna eta integrazioa

**39 /** Arrazak, erlijioak, generoak edo nazionalitateak eragindako bereizkeriaren aurkako borroka babestea, Oinarrizko Eskubideen Europako Gutunean jasotako printzipioei jarraikiz.

**40 /** Diskriminazio-prozesu horien jarraipena egitea Batasuneko zuzenbide-estatuaren kalitateari buruzko urteroko txostenetan, nahiz eta ez gertatu Erkidegoko legeria betearaztearen ondorioz.

**41 /** Estatu kide guztiak behartzea Genero-indarkeriari buruzko Istanbulgo Protokoloa berrets dezaten Batasunean sartzen direnean, eta zaintza aktiboa egitea emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Erkidegoko legeria nagusia betetzeari dagokionez.

**42 /** Zuzendaritzaren, ekonomiaren, hezkuntzaren, politikaren eta gizartearen eremuan lana areagotzea, desberdintasuna elikatzen duten eta emakumeen aurkako indarkeria justifikatzeko funtsezkoak diren este-reotipoak desagerrarazteko. Fenomeno horrek Europar Batasunean duen prebalentziari eta irismenari buruzko ikerketa-lanetan sakontzea. Arreta berezia jartzea etorkizuneko garapen ekonomikoko sektoreetan eta STEM esparruan (zientzia, teknologia, ingeniaritza eta matematika).

**43 /** Aniztasun-mota guztiak aitortzen sakontzea eta dibertsitate funtzionala, kognitiboa eta/edo sentso-riala duten pertsonak integratzeko eta ahalduntzeko politikak garatzea. Desgaitasunerako Europako Behatokia hezurramitzea eta Europako Desgaitasun Txartela erabat garatzea. Europako politikagintzan irisgarritasun unibertsalaren ikuspegia txertatzea.

**44 /** Zahartze aktiborako politiken gaineko Europako ikuspegiaren alde egitea, esperientzia- eta talentu-iturri gisa, marjinazioaren aurkako antidoto gisa eta adinekoak ahalduntzeko eta belaunaldien arteko elkartasun-faktore gisa. Belaunaldiartekotasuna sustatzea Europako politiketan.



## Migrazio-itun berria

**45 /** Migrazio-itun berria abian jartzea, eta, horri dagokionez, bereziki hobetzea honako alderdi hauek: migratzaileen etorrera masiboengatiko larrialdietan laguntzeko mekanismoak; pertsonak estatu kideen artean azkar birbanatzea, nahitaezko elkartasun-mekanismotan oinarrituta; eta bisak kudeatzeko izapideak arintzea.

**46 /** Bermatzea Batasun osoan modu homogeneousan aplikatzen dela immigrazioari eta asiloari buruzko Europako esparru berria, eta edozein arrazoik eragindako diskriminazioa saihestea; horretarako, monitorizazio independentea sustatzea identifikazio- eta harrera-prozesuetan, asiloa izapidetzean, kokatze-prozesuan eta familiak berrelkartzeko prozesuetan. Era berean, giza eskubideen errespetua bultzatzea horietan guztietan. Harrera-betebeharra nahitaez banatzeko mekanismoak indartzea eta ez-betetzeak zehatzeko mekanismoak arbitratzea.

**47 /** "Sarrera-fikzio" deituriko anomalia amaitzea, kontuan izanik arbitrariotasunak ekartzen dituela migratzaileen harrera-prozesuetan, baita haien izaera juridikoan ere identifikazio-prozesua gauzatzean ere. "Atxikitzeak", askatasunaz gabetzeko prozesuak, muga atxilotzeak eta, oro har, bestelako figura paralegalak modu masiboan, berezi gabe eta arbitrarioki aplika daitezzen eragozteak.

**48 /** Birkokatze eta Onarpen Humanitariorako Europako Planak eskaintzen dituen aukerak aplikatzea, Birkokatze Esparru Berrian aurreikusita bezala. Sarrera kontrolatzeko prozedurak humanizatzea, eta eskubide-urraketak saihestea. Itzulketa-prozedurak ahalik eta gehien mugatzea, eta ukituriko pertsonen eskubideak azkar, garden eta errespetuz beteko direla bermatzea. Mugako itzulketa masiboak eta estatu kide batzuek ezkutuan egiten dituztenak debekatzea eta zigortzea.

**49 /** Garapen bidean dauden herrialdeentzako lan-kidetza- eta laguntza-politika bateratua sustatzea, gardentasunean eta agintariekiko elkarrizketan oinarrituta, arrakasta-aukera onenak identifikatzeko, emaitzak denbora errealean ebaluatzeko eta emaitza horien arabera egokitzeko. Afrikari buruzko Europako estrategia berria ezartzeko eta gauzatze prozesua azeleratzea.

**50 /** Mugak kanpora ateratzea xede duen edozein akordioaren kontrol parlamentarioa lotesle bihurtzea. Horrelako neurrien aplikazioa ahalik eta gehien mugatzea, eta kontrola alderdi hauetan ardatzea: programa horiek finantzatzen dituzten baliabideen erabilera, edozein praktika ustelen prebentzioa, eta estatu hartzaileek oinarritzko eskubideak errespetatzeko planteak ezaketan arriskua ebaluatzea.

**51 /** Aldi Baterako Babeserako Zuzentzarauak eskaintzen dituen aukerak agortzea krisi klimatikoek, gerrek edo segurtasun-gorabehererek sortutako populazio-mugimendu masiboari aurre egiteko tresna gisa, eta, ildo horretan, Ukrainako inbasioaren ondorioz errefuxiatuak hartzeko funtzionatu duten protokoloen modukoak aplikatzea.

**52 /** Errefuxiatuen eta migratzaileen alde lan egiten duten GKEen eta itsasoan erreskatean aritzen diren erakundeen lana babestea, eta, bide horretan, haien kriminalizazioa edo haien jarduerak eragozteko edo zailtzeko mekanismo burokratikoek erabilera galaraztea. Lehorreratzeko eta birkokatze mekanismo se-guruak ahalbidetzea, aurreikusteko modukoak.

**53 /** Harrera-sistemak aplikatzeak estatu kide guztietan bizi-maila duina eta bizi-baldintza alderagarriak eskaintzen dituela bermatzea, eta, ildo horretan, Asiloa Hartzeko Zuzentzarauak jasotzen dituen manuen ez-betetze posibleak monitorizatzea eta zehatzea.

**54 /** Erkidegoko agintariak inplikatzeko Lisboako goi-mailako hezkuntzako kualifikazioak aitortzeari buruzko hitzarmena aplikatzeko kontrolean, eta, hala, errefuxiatuei eta asilo-eskatzaileei tituluak homologatzeko eta lanbide-akreditazioa emateko prozesuak bizkortzea, kolektibo horien prestakuntza-aukerek bat datorren integrazio azkarra ahalbidetzeko. Prozedurak digitalizatzea, aitortza horren bitartez azaleratutako profilekin bete ahal izateko Europako produkzio-sarean estali gabeko beharrak.

**55 /** Bata bestearekin lotzea, batetik, Europako despopulazioaren aurkako demografia- eta borroka-politikak, eta, bestetik, harrera, birkokatzea eta integrazioa.

**56 /** Ikuspegi europarra ezartzea migratzaileen, asilo-eskatzaileen eta errefuxiatuen aurka egiten diren gorroto-delituei aurre egiteko.

**57 /** Tokiko eta eskualdeko agintariak migrazio-politikei buruzko erabaki-prozesuetan benetan eta eraginkortasunez integra daitezzen sustatzea. Maila horretan ematen zaizkie zerbitzuak migratuei, hala egiten zaie aurre etorkinen etorrera masiboak eragiten dituzten erronkei, eta modu erreal eta eraginkorrean gertatzen dira gizarteratze- eta laneratze-prozesuak. Gobernantza-maila hori menderatzea erabakigarria da migrazio-itun berriak ezartzen duen nahitaezko harrera-erantzukizunaren printzipioa gauzatzeko.

**58 /** Aintzakotzat hartzea hiriek eta eskualdeek eman dezaketen jakintza Batasuneko lurralde bakoitzaren integrazioarako eta enplegurako benetako aukerei eta gaitasunei buruz, eta ondare hori harrera-erantzukizun erkidea gauzatzeari buruzko erabakietan txertatzea.

---

### **3.2. Eraldatzailea izango den Batasuna. Erresilientea eta subiranotasun estrategikoarekin**

---

Batasunak Aurreko legealdian izan dituen krisiek ohartarazten dute oso garrantzitsua dela gaur egun Batasunaren lehiakortasuna oztopatzen duten mendekotasunak ezabatzea eta eragile global gisa dugun eginkizuna ekoizpen-ikuspegitik babesteko subiranotasun estrategikoa lortzea. Zenbait arlotan ditugun ga-beziak —hala nola energian, lehengaietan, elikagaietan eta, bereziki, itsasoko produktuetan— zuzendu beharreko faktore exogenoak dira, eta jarduera bizi bati gehitu behar zaizkio, eskura dugun talentu guztia gure produkzio-sisteman integratzeko. Berrindustrializazio bete-betean dagoen sistema bat, trantsizio berde eta digitalean oinarrituta.

---

### **Berrindustrializazioa**

---

Europako ekonomia eraldatzea eta bultzatzea, eta, bide horretan, ekonomia zirkularra eta digitalizazioa garatzeko paradigmen alde egitea. Berrindustrializazioa eta Batasunaren egungo mendekotasunak ezabatzea, batez ere energiaren eta teknologiaren arloan, arreta berezia ipinirik eremu digitalari eta adimen artifizialaren eta bestelako teknologia disruptiboaren garapenari. Sektore ekonomiko berrien potentziala aprobetxatzea, hala nola sormen-industriena, ikus-entzunezkoena eta aisialdiarena.

**59 /** EBko materialen zirkulartasuna areagotzea, eta, bide horretan, material arraroen berrerabilera eta birziklapena bultzatzea hornidura-katearen jarraipen osoarekin, bai eta diseinu ekologikoa sustatzea ere.

**60 /** Akta digitala erabat garatzea, agertoki teknologiko, erregulatuak eta finantzario egoki bat ahalbidetzeko, eta, hari esker, gure lehiakide globaletako erraldoi teknologikoek sektorean duten nagusitasunari aurre egin ahal izateko. Enpresa ESTRATEGIKOEN EUROPAKO PLATAFORMA (STEP) indartzea.

**61 /** Klima-aldaketa globalaren azelerazioa eragiten duten elementuen aurka borrokatzea eta horrek izan ditzakeen ondorioak prebenitzea. Beharrezko trantsizio energetikoa kudeatzea, oinarri gisa harturik teknologia, neutraltasun teknologikoa, inplikaturako sektoreekiko elkarrizketa eta lankidetzeta, eta kontsumo eta mugikortasun ohitura jasangarriagoak sustatzea.

**62 /** Hazkunde ekonomikora eta enplegua sortzera bideratutako Batasun Fiskalerantz aurrera egitea eta finantza-merkatuen erreformari heldzea; hala, Europako hub bat lortu ahal izango dugu, trantsizio berde eta digitalak eskatzen dituen inbertsio itzelei euskarria eman ahal izateko. Tresna horiek ezinbestekoak dira arau fiskalen segurtasun juridikoa bermatzeko eta mundu zabaleko ezegonkortasun-fokuen ondorio ekonomiko eta sozial kaltegarrien aurka borrokatzeko.

**63 /** Lehengai estrategikoen ustiapen jasangarria lantzea Europar Batasunean, eta gure inportazioak gehiago dibertsifikatzea. Hobeto kontrolatzea ondasun eta teknologia estrategikoen esportazioa.

**64 /** Batasunaren subiranotasun estrategikoari laguntzeko ekintza-katalogoaren barnean, lehentasun bilakatzea atzerriko agenteen espioitza ekonomikoari estuago aurre egiteko zaintza eta ekintzak.

**65 /** EBko kontratazio publikoko arauak berritzea, esleipen bat egiteko baloratu beharreko faktoreen artean argi eta garbi txerta daitezkeen ingurumen- eta gizarte-kontsiderazioak, eskaintza ekonomikoari zuzenean lotutakoei gaineratuta. Klausula horiek zorrotasun bereziz aplikatzea EBren subiranotasunerako estrategikoak diren zerbitzuak eta industriak kontratatzean.

**66 /** Kotizazioari buruzko Zuzentarauak eskaintzen dituen aukera guztiak abian jartzea, eta finantza-gaikuntzako programak ezartzea, finantzaketa eskuratzeko arazoak gainditzeko, horiek baitira Europako ETEen oztopo nagusia. Enpresa txiki eta ertainen (ETE) Europako definizioa berrikustea, enpresa horiek Horizonte programaren berrikuntza-programetan parte har dezan sustatzea, esportazio-kredituen Europako estrategia ixtea eta EB osoan koherentziaz aplikatzea.

**67 /** Europako Subiranotasun Funtza aktibatzea eta indartzea, eta, gainera, balizko inbertsioen ehuneko bat ETEentzat gordetzea. Berankortasun Behatokiaren ahalmen guztiak abian jartzea, kobratzeko epeak bermatzeko Europako araudi berriaren aurreikuspenak erabat gauzatzeko.

---

### **Elikadura-segurtasuna**

---

**68 /** Batasunaren elikadura-segurtasuna bermatzea, eta, horretarako, balio-katea erreformatzea, nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizleei, arrantzaleei eta akuikultoreei toki egiteko, guztia ere Batasunaren autonomia estrategikoari egiten dioten ekarpena aitortzeko, balioesteko eta ordaintzeko. Gure ekoizpenak babestea Batasuneko estandarrak betetzen ez dituzten hirugarren herrialdeen lehia desleialetik.

**69 /** Tresna hori bera eta Elikagaien Merkatuen Antolaketa Bateratua baliatzea, premia biziko produktuen kontsumoari eragiten dioten tentsio inflazionistak kontrolatzeko eta ildo horretako merkatu-interbentzioetarako, bai eta egoera kalteberan dauden pertsoneri laguntzeko programak gauzatzeko ere. Itsas produktuen Merkatuen Antolaketa Bateratuan erakunde profesional guztiek duten eginkizuna aintzatestea, baita arrantzaleen kofradia ere.

**70 /** Itsasoko elikagaiak “Baserritik mahaira” estrategian txertatzea. Arrantza-sektorearen digitalizazioa aprobetxatzea haien produktuek merkatuan duten trazabilitatea hobetzeko eta gure gizarte- eta ingurumen-estandarrak betetzen dituzten Europako ekoizpenak hirugarren herrialdeen lehia desleialetik babesteko.

**71 /** Nekazaritza-teknologia aurreratuak babestea, hala nola doitasunezko nekazaritza, sentsoreak, adimen artifiziala eta robotika, ustategien eraginkortasuna hobetzeko. Ustategi jasangarriak dira sektorearen iraunkortasunaren oinarria.

**72 /** Arrantza Politika Erkidearen kanpo-dimentsioa garatzen jarraitzea, legez kanpoko, aitortu gabeko eta arautu gabeko arrantzaren aurka borrokatzeko tresna gisa; alderdi ekonomiko eta sozialetan eta ingurumenaren alorrean ditugun estandarrak zabaltzea mundu zabalean, garapenerako lankidetzarako tresna gisa.

**73 /** Ontzien segurtasuna, haien eragiketa- eta bizigarritasun-baldintzak eta propulsaizaileen energia-efizientzia hobetzeko jarduerak txertatzea Arrantzarako eta Akuikulturarako Europako Funtsean hauta daitezkeen jardueren artean.

**74 /** Sektorearekin elkarriketa egituratua eta iraunkorra izatea eta elkarriketa-bide horietan sakontzea — haren bidez lortu da azken legeria, Nekazaritza Politika Bateratua sinplifikatzeko eta gehiegizko erregulazioa arintzeko—. Lurra eskuratzeko bideak eta landa-garapena hobetzea, belaunaldi-erleborako eta gaikuntza digitalerako giltzarri gisa, eta, hala, sektoreko berrikuntza eta errenta dibertsifikatzeko eragiketak bizkortzea.

**75 /** Lehen sektoreko profesionali buruzko benetako kontakizuna sustatzea, eta, ildo horretan, hortzak erakustea inon direnak irensteko eta harrapatzeko bokazio iradokitzen duten mitoei, ez baita existitzen halakorik; aitzitik, aintzatestea zer-nolako ekarpena egiten duten klima-aldaketaren aurkako borrokan, jasangarritasunarengarapenean eta biodibertsitatearen kontserbazioan. Lurreko eta itsasoko baliabideetatik eta haiekin harremanetan bizi direnek dute interesik handiena jasangarritasunaren alde.

**76 /** Arrantza-komisario bat sortzea, nekazaritzaren alorrean dagoenaren tankeran, eta, hala, eskumen horiek ingurumen-arduradunaren zorrotik bereiztea eta

aipatutako zorroaren titularraren gobernantza-ohituretan txertatzea alor horretako jakintza eta sektorearen barneko elkarriketa eta solaskidetzara.

## Burokrazia eta administrazio-kargak murriztea. Interoperagarritasuna eta sinplifikazioa

**77 /** Oztopo administratiboak kentzea, ekintzaitzari burokrazia sinplifikatzea eta karga administratiboak saihestea, eta Europako programetan onuradun gisa parte hartzea, batez ere Nekazaritza Politika Bateratuan, Arrantza Politika Bateratuan eta Arrantzarako eta Akuikulturarako Europako Funtsean.

**78 /** Sinplifikazio hori lortzeko mekanismoak abian jartzea eta orokortzea, hala nola OOTS plataforma (Behin Bakarrik Sistema Teknikoa), maila guztietako administrazioekin harremanak errazteko.

**79 /** Europako programen arteko sinergiak babestea. Enpresaren lurralde- edo sektore-jatorriak ez dio kalterik egin behar Europako politiketatik baliabideak eta laguntza erakartzeko gaitasunari.

## Talentuaren Europar Batasuna

**80 /** Giza kapitalaren, prestakuntzaren eta jakintzaren aldeko apustua, garapen-paradigma berriaren oinarri gisa. Hezkuntzaren eta produkzio-sistemaren arteko elkarriketa bultzatzea, prestakuntza prediktiboaren bitartez posible izan dadin lan-merkatuan sartzen direnen edo langabezia-prozesuen ondoren itzultzen direnen enplegarritasuna hobetzea, bai eta enpleguaren kalitatea areagotzea ere.

**81 /** Berdintasuna eta diskriminaziorik eza lehiakortasun-faktoretzat hartzea eta horren arabera jardutea. Generoa edo adina ezin dira izan oztopo: eskura dugun talentuak gai izan behar du Batasunak bizi duen eraldaketa-prozesuari trebetasunak eta gaitasunak eskaintzeko. Erabakigarria da desberdintasuna eragiten duten estereotipoei aurre egitea, desberdintasuna eta genero-indarkeriaren adierazpen nagusia amaitzeko.

**82 /** Europako unibertsitate-aliantzarako bikaintasun- eta berrikuntza-estrategia garatzea eta tituluak eta diplomak aitortzeko bidean aurrera egitea.

## Bidezko lehia gure lehiakide globalen aurrean

---

**83 /** Baldintzazkotasun-klausulak indartzea Batasunaren merkataritza-politikan eta arrantza-akordioetan, EBko ingurumen- eta gizarte-estandarrak mundu osoan zabaltzea sustatzeko.

**84 /** Lankidetzeta eta koordinazioa sustatzea arauetan (Merkatuaren Antolaketa Bateratua) eta munduko garapen ekonomikoan (Nazioarteko Diru Funtza, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea, G-8, G-20) oinarritutako bidezko lehia globala bermatzen duten erakundeekin, herrialdeen arteko alde biko edo alde anitzeko harremanak ahaztu gabe.

**85 /** Desindustrializazio-testuinguru batean, "Made in Europe" eskakizuna txertatzea sektore estrategikoetan, hala nola ontzigintzan, kontratazio publikoan irizpide ekonomiko soilez gainera bete beharreko baldintza gisa. Ontziak erosteko eta eraikitzekeo pizgarriak eta baldintzazkotasun-tresnak eskaintzea, ontzigintzari laguntzeko Europako programak ez daitezzen aplikatu Batasuneko merkatura bideratutako hirugarren herrialdeetako ontzioletako eragiketetan.

**86 /** Erreminta eraginkor bat eskaintzea, Europako ontziolen lehiakortasuna babesteko atzerriko lehiakideen kostutik beherako salmentetatik, eta, bide horretan, erabat aplikatzea 2016/1035 Erregelamenduak eskaintzen dituen aukerak.

**87 /** Europako Banku Zentralari presioa egitea transakzio likido eta digital handiak hobeto kontrola ditzan, dirua zurtzearen, zerga-ihesaren, ustelkeriaren, terrorismoa finantzatzearen eta delinkuentzia antolatua arka borrokatzeko.

**88 /** Finantza-identifikazio digitala garatzea Europar Batasun osoan, bezeroek, bankuek eta inbertitzaileek erraz ezagutu dezaten EBko beste estatu kide batzuen identifikazioa.

## Mugikortasun integratua, adimentsua eta jasangarria

---

**89 /** Europako Barne Garraio Sareak azpiegituren arloan dagoeneko zehazten dituen konpromisoak betetzea, kontuan izanik, gainera, mugikortasunaren digitalizazio integrala ere bultzatu behar duela. Mugikortasun-eredu integratu eta adimenduna sustatzeak garraio bide guztien erabilera efizienteagoa ekarriko du, lehenengo kilometrotik azkenera arteko mugikortasun-beharrak konponduko ditu, eta pertsonak eta salgaiak garraiatzeko bideak ipiniko ditu aukeran, aintzakotzat harturik kostua, emisioak eta denbora.

**90 /** ReFuel Europe programan jasotako konpromisoak gauzatzea, abiazioan eta itsas garraioan erregai alternatiboaren erabilera sustatzeko. Erregai alternatiboak hornitzeko azpiegituri buruzko Europako arauen aurreikuspenak betetzea Europako Barne Garraio Sare nagusian 2030. urtea baino lehen.

**91 /** Europako oinarritutako barneko garraio-sarean salgaiak errepidez garraiatzeko 100.000 aparkaleku seguru jartzeko aurreikuspenak gauzatzea, eta sailkatzeko mekanismo bat ezartzea, ekipamendu- eta segurtasun-mailen arabera.

**92 /** Mugikortasun-paketearen aurreikuspenak betetzea, errepideko garraioaren sektorean dumpinga saihesteko eta Batasun osoan garraiolari-lanbidean sartzeko baldintzak modu homogeenan aplikatzeko. Trebetasun digital berriei buruzko prestakuntza-prozesuak bizkortzea eta mugikortasunaren big datan oinarritutako ekintzaitzak agertzea.

**93 /** Sektoreari eta, bereziki, enpresa txiki eta ertainei zein autonomoei laguntzea flotaren karbonizazio-prozesuetan eta kudeaketa- eta kontrol-prozesuak digitalizatzen.

**94 /** Europako Barne Garraio Sarean denbora errealeko monitorizazio-zerbitzu bat (RTMS) instalatzea eta martxan jartzea trenbide-garraioa kontrolatzeko eta kudeatzeko sisteman, zerbitzuaren segurtasuna, gaitasuna eta batez besteko abiadurak hobetzeko.

**95 /** Europako Zeru Bakarria garatzea, funtsezko elementua baita aireko garraioaren efizientzia lortzeko eta emisioak murrizteko. Europar Batasuna munduko lider bihurtzea zero emisioeko hegazkinen fabrikazioan.

**96 /** Europar Batasunean bateriak ekoizten eta energia biltegitzen laguntzea, eta erregai alternatiboak hornitzeko azpiegiturak hedatzea.

**97 /** Bizikleta hiriko mugikortasun jasangarriaren abangoardian kokatzea eta Bizikletaren Europako Urtea egin dadin proposatzea.

**98 /** Eskualdeak eta tokiko botereak ahaldundutzea mugikortasun-ohitura jasangarriak eta multimodalak sustatzeko. Garraio publikoaren erabilera sinplifikatzea, bereziki txartel-sistema komun bidez.

## Trantsizio energetikoa

---

**99 /** Energia alternatibo eta berriztagarri buruzko ikerketa bultzatzea sektore guztietan eta, bereziki, erregai fosilekiko mendekotasun handiena dutenetan. Bide horretan, xede gisa hartuko dira neutraltasun teknologikoa, eta ekintzaitza-mota hori hartzen duten tokiko

komunitateekin eta horiek sustatzen dituzten sektoreekin jardungo da lankidetzan eta solasean.

**100 /** Kamioien, autobusen, turismoen eta errepide bidezko garraioan diharduten ibilgailuen emisioei loturiko helburuak epearen barruan eta irizpide erabat objektiboekin egikaritzea, desbideratze posibleak epe barruan eta modu egokian zuzentzeko.

**101 /** Ibilgailu-parkea berri dadin sustatzea, eskaria geldiaraziko duten mezu alarmistak saihestuz, prozesuak emisioak murrizteko egiten duen ekarpena behar bezala ebaluatuz, eta ibilgailu horiek eskuratzeko edo erabiltzeko formulak sustatuz, ziurgabetasun teknologikoa argitzea.

**102 /** Integrazio-ekimenak babestea, hala nola Hidrogenoaren Euskal Korridorea, energia-trantsizioaren arrakastarako bereziki kritikoak diren eragileen arteko interakzioa eta sinergiak bultzatzeko. Aukerak sortzen dituzten hub energetiko berriei loturiko inbertsioak sustatzea, hala nola portuen ingurukoak.

**103 /** Energia sortzeko eta garraiatzeko iturri berriak garatzea, bai eta energia kontsumitzeko, hornitzeko eta kudeatzeko paradigma berriak ere. Ikerketa, berrikuntza, jakintza-sorkuntza eta prestakuntza sustatzea ingurumen-lanbide berrietan.

**104 /** Energia-sare nazionalen arteko interkonexioak eta lankidetzak hobetzea, energia-segurtasuna areagotzeko. Eraikinen eraberritzeak eta garraio garbien garapena bizkortzea, eta, hartara, erregai fosilen gure inportazioak murriztea, bereziki zainduz estatuko legedian egokiro txertatzen dela energia-efizientziari buruzko zuzentaraua.

**105 /** Eskualde ultraperiferikoak berrikuntza energetikoko laborategi gisa finkatzea, eta, bide horretan, haien tamaina eta ezaugarriak ez ezik, erresilientzia energetikoa autosufizientziaren bidez lortzeko beharra ere aprobeztatzea.

**106 /** Tokiko eta eskualdeko agintariak mugikortasunaren alorreko kontsumo-ohitura berriak sustatzen eta energia-efizientziako programak aplikatzen duten eginkizuna babestea.

**107 /** Sektore efizienteak eta deskarbonizazioaren arrakastarako funtsezkoak direnak babestea, eta emisioak murrizteko helburuak betetzea, kogenerazioarena, kasu. Energia-teknologia berritzaileetan eginiko inbertsioak babestea, hala nola energia osmotikoan, marea-energian, offshore eolikoan edo fusio-energian eginikoak (bereziki ITER edo Nazioarteko Erreaktore Termonuklear Esperimentalean egindakoak).

**108 /** Ura garatzeko eta kudeatzeko azpiegitura logistikoa eta teknologikoa berriak garatzea, baita hondakinak ezabatzekoak ere.

**109 /** Gizarte-ekimeneko edo titulartasun publikoko karbono-hustubideak sortzen laguntzea (herri-basoak), baldin eta isurketa-eskubideei buruzko enkanteetan parte hartzeak inpaktu kolektibo positiboak sortzen baditu horiek kudeatzen dituzten komunitateetan.

## Ekintzaitza digitala, berrikuntza irekia eta GovTech

**110 /** Erdieroaleen eta txipen ekoizpena areagotzea Europar Batasunean. Europako benetako ekosistema digital baten eta Europako industria-ekosistemaren ikuspegia garatzea. Trantsizio digitalaren eta berdearen arteko korrelazioa estimulatzea, trantsizio energetikoko eta ikazkintzako prozesuekin lotutako informazioaren sarbidea eta tratamendua hobeto monitorizatzeko eta sistematizatzeko.

**111 /** Merkatu digital bakarra garatzea, barne-oztopoak ezabatuko dituen eta Europako ekintzaileak gure lehiakide globalen aldean eskalatzen lagunduko duena. Europar Batasunean datuak biltegitratzen eta tratatzen laguntzea, bereziki gure lehiakide globalen ordenamendutik eta estandarretatik babesteko.

**112 /** Gobernantza teknologikoko eta diplomazia digitaleko gure prozedurak estimulatzea. Sektore pribatuarekiko elkarrizketa indartzea, jarduera-sektore horretako erronka geopolitikoei arrakastaz aurre egiteko. Lankidetzak-plataforma horietatik abiatutik, digitalizazioak barne-produktu gordinean (BPGd) duen inpaktua ebaluatzeko mekanismoak garatzea, bai eta sustapen-politikak denbora errealean ebaluatzeko eta zuzentzekoak ere.

**113 /** Produktu eta soluzio digitalen Europako sektorearen garapena sustatzea, bereziki administrazio publikoarentzat, eta, horretarako, berrikuntza irekiko estrategiak eta GovTech baliatzea.

**114 /** Gaitasun digitalen prestakuntzan inbertitzea, bai eta azpiegitura burujabeetan, zibersegurtasunean eta datuen babesean ere. Benetako herritartasun digitalaren garapena sustatzea, pertsonak, erakundeak eta enpresak alfabetatzean oinarrituta, eta, bereziki, administrazio-prozesuen gardentasuna eta haietarako irisgarritasuna sustatzen duten zerbitzu publiko interkatiboak bultzatzea.

**115 /** Eskualde ultraperiferikoen baldintza bereziak eta horietan aplikatu beharreko politikak kontuan hartzea, Europar Batasuneko programa guztietan eten digitala eta azpiegitura digitalen programak zuzentzeko.

**116 /** Akta digitalaren eduki guztiak garatzea eta be-tearaztea. Adimen artifizialerako arau-esparru argi bat garatzea, barnean hartuko dituen algoritmoen gardentasuna eta kontrola, Europar Batasuna toki seguru gisa posizionatu dadin teknologia horretan inbertitzeko eta garatzeko. Egungo arau-esparrua Batasun osoan modu homogeenan aplikatzen dela bermatzea.

### Batasunaren espazio-politika

---

**117 /** Tratatuaren berrikuspena bultzatzea, EBk eginkizun garrantzitsuagoa eman diezaion espazioa erregulatzeari. Europar Batasuneko legeria orokor bat proposatzea espaziorako, bereziki ingurumen- eta espazio-jasangarritasuneko irizpideekin, baina baita espazio-segurtasuneko arauekin ere.

**118 /** Europar Batasunaren espazio-aurrekontua handitzea, bereziki EBk espaziora sarbidea izango duela eta satellite-konstelazioak garatuko direla bermatzeko (Galileo, Koperniko, IRIS2).

**119 /** Europako Espazio Agintaritza baten sorrera proposatzea, Europako eta estatu kideetako gure espazio-aktiboak hobeto babesteko. Satellite publiko eta komertzialak Europar Batasuneko lurraldetik abiarazten laguntzea.

---

### 3.3. Pertsonekin eta demokraziarekin. Gehiago parte hartzen duen Europa, askotarikoagoa eta gertuagoa

---

Pandemiak mugatu egin zuen herritarrekin egituratu-tako lehen elkarrizketa-esperientzia transbertsalaren irismena, zeinaren helburua baitzen gogoeta egitea: ez Batasunaren etorkizunaz bakarrik, baizik eta beharrezko erreforma instituzionaleraz eta gobernantzaz ere bai. Eragozpenak eragozpen, Europaren Etorkizunerako Konferentzia murriztuaren ondorio guztiek bat egiten dute herritarrek Batasunaren erabaki-prozesuetan hautematen duten zilegitasun demokrati-koaren defizita konpontzeko bidean. Guk partekatu egiten dugu formula hori.

Horri dagokionez, eutsi egiten diegu dagoeneko eza-gunak diren instituzioak erreformatzeko proposame-nei: ahobatekotasun-arauaren amaiera; lankidetzaren indartzea; Europako Parlamentuaren legegintza-, kontrol- eta aurrekontu-eskumenak indartzea; Europako Batzordearen egitura bere eginkizunekin egokiagoa izatea lurralde-ordezkaritzarekin baino, kontuan izan-nik Kontseiluak egiten duela lan hori legegintzako

eskumena duen erakunde kide gisa; edo Spitzenkan-didat bat ezartzea Europako Batzordearen ageriko burua aukeratzeko.

Baina gure proposamenak neurrietan bilduko ditugu —kontuan izanik aniztasun baten ordezkari garena, aniztasun erreala baten ordezkari, orain arte modu sinbolikoan landu dena EBko erakundearen jardunean—, sinplifikatzeko eta gertutasuna emateko. Pertsonekin elkarrizketa-prozedura egituratuak eta iraunkorrak garatzearen aldeko apustua egiten dugu, tokiko eta eskualdeko erakundeekin harremanak hurbil dituztela aprobetxatuz. Horretarako, aniztasuna aitortzea eta integratzea aipatzen da prozesuaren oinarri gisa. Eta, horrekin batera, behar espezifikokoak dituzten lurraldeekin eta gizarteekin elkarrizketa indartzea, hala nola uharteetako eskualdeekin eta eskualde ultraperiferikoekin. Baina, horretaz gainera, Europako Parlamentuan entzute aktiboaren estrategia errepikatzearen alde gaude. Estrategia horri esker, Europako legeen parte dira dagoeneko Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Kanarietan, Balear Uharteetan, Valentzian edo Galizian sorturiko hamaika ideia; hau da, Europa Solidarioaren Aldeko Koalizioan elkarturiko bazkideon ideiak.

### Berrikuntza publikoa, gobernu ona, gertutasuna eta herritarren parte-hartzea Europako prozesuetan

---

**120 /** Erakunde politiko, ekonomiko, sozial eta kultural globalak berritzeko politika komuna sustatzea, eta, hala, apurka-apurka hobetzea eta berritzea parte hartzeko, gobernatzeko eta erabakiak hartzeko baldintzak, baita gardentasuna, kontrola eta publikitatea bermatzen dituztenak ere.

**121 /** Herritarrekin entzute aktiboko politika egitea; horretarako, tokiko eta eskualdeko eragile zibilen presentzia bultzatzea gardentasunaren Europako erregistroan, eta abian diren legegintza-prozesuei buruzko proposamenak eta ekarpenak egitea.

**122 /** Erakundearen arteko koordinazioa, gobernantza-maila guztietan ekintza koherentea garatzeko eta herritarrek parte hartzeko eragile gisa bultzatzeko, guztia ere Batasuneko gobernantzan hurbilen dauden erakundeekin bitartez. Dinamika hori Europako Herritarren Ekimenean txertatzea.

**123 /** Eskualdeei protagonismo handiagoa ematea 2021-2027 aldirako Europako Estrategian. Batasuneko eskualde atlantikoaren arteko lankidetzaren indartzea, eta, bide horretan, Europar Batasunean gaur egun dauden lau eskualdeekin bat egingo duen makroeskualde bat bultzatzea.

## Uharteak eta eskualde ultraperiferikoak

**124 /** Erkidegoko ordenamenduan eskualde ultraperiferikoen estatus berezia sendotzea, lurralde horietan Europako politikak modulatzeko jarraitu ahal izateko.

**125 /** Arreta berezia jartzea turismo jasangarriaren garapenarekin loturiko gaiei eta emisioen merkataritzari eta araubideari; era berean, lurralde horiek jasangarritasunaren arloko benetako berrikuntza-ardatz gisa har ditzaketan esperientzia guztiak bultzatzea.

**126 /** Sortzen ari diren diziplinetan talentua prestatzeko, atxikitzeko eta erakartzeko programa zehatzak sortzea, eta, hala, deskarbonizazio-programa espezifikoak gauzatzea mugikortasun-premia eta -baldintza bereziak dituzten Europar Batasuneko eremu horietan.

**127 /** Adimen artifizialeko soluzio espezifikoak sustatzea turismo-sektorean gentrifikazio-prozesuak kudeatzeko eta prebenitzeko, bai eta turismo jasangarriko eskaintza berriak garatzea ere, bisitarien eta tokiko biztanleen arteko bizikidetzak bilaka dadin aktibo nagusi.

**128 /** Elkartasun-programa guztiak mantentzea eta indartzea —hala nola POSEI, Urruntasunaren eta Uhartetasunaren aldeko Aukera Espezifikoaren Programa—, termino faktikoetan adierazten baitute Europa kontinentalak bere uharte- eta periferia-eskualdeekin duen elkartasuna eta kohesioa. Orain arte bezala, Erkidegoan aitortzea eta errespetatzea lurralde horietako zerga-araubide bereziak eta eskema instituzionalak, eta kudeatzaileek Kontseiluko lantaldeetan edo ministroen bileretan parte hartzea.

**129 /** Uharte-egitateari lotutako gaitzatuak konpentsatzea. Ildo horretan, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 EB Erregelamenduaren aldaketa sustatzea, eta, hala, nabarmen areagotzea uharteetako lurraldeetarako salgaiak garraiatzeko enpresa batek hiru urtez metatutako laguntzen egungo muga (200.000 eurokoa).

## Gobernantza eta aniztasuna

**130 /** Hauteskunde-legearen erreforma bultzatzea, gure nazioak hauteskunde-barruti gisa onar daitezkeen Europako Parlamenturako hauteskundeetan. Ildo beretik, edozein ekimen babesteko dugu, baldin eta bermatzen badute hauteskunde-barrutiek kontuan hartzen dituztela administrazio-antolamendua, kokapen geografikoa, uharte-lurraldeen eta lurralde ultraperiferikoen baldintza fisiko bereziak eta Europa

osatzen duten estatuen, nazioen eta eskualdeen tradizio historikoa.

**131 /** Europar Batasunean gure nazioen onarpen politiko eta instituzional osoaren alde lan egitea. Elkarriketan oinarrituriko soluzio demokratikorako mekanismo bat aldezte, Europako erakundearen ikuskaritzapean, baldin eta autogobernua aitortzeko, garatzeko eta/edo erabakitzeko eskubidea aitortzeko prozesuetan alderdien arteko desberdintasunek lurralde-gatazkek sortzen badituzte eta demokraziaren eta zuzenbide-estatuaren kalitateari kalte egiten badiote.

**132 /** Eskualdeetako Lantaldeari beharrezko baliabideak ematea, organo aholku-emaitza soil izatetik komunikazio-eragile izatera igaro dadin, eta, hartara, gai izan dadin Europako legediak eskualdeetan duen lurralde-inpaktua ebaluatzen.

**133 /** Euskararen, katalanaren eta galegoaren ofizialtasuna aldarrikatzea Europako Parlamentuan, baita Batasuneko eta nazioarteko beste erakundeetan ere, bereziki hizkuntzarekin, kulturarekin eta hezkuntzarekin zerikusia dutenetan. Hizkuntza eta kultura horiek babesteko lege-esparru lotesle bat abian jartzea, Europako Minority Safe Pack herri-ekimenaren planteamenduen ildotik.

**134 /** Datorren legegintzaldian parlamentuko interalde bat sortzea Europako gutxiengoei, hizkuntzei eta nazio tradizionalei buruz. Aniztasun hori babesteko komisario espezifiko bat sortzen laguntzea eta esparru lotesle bat osatzea gutxiengo nazionalakoak diren edo hizkuntza gutxiak hitz egiten dituzten berrogeita hamar milioi europarren eskubideak babesteko.

**135 /** Hizkuntza eta gutxiengo tradizionalei buruzko parlamentuko ebazpena betetzeari buruzko txosteneko proposamenak garatzea, Europako Parlamentuko Gutxiengoaren Intertaldeak onetsi eta hamar urte igaro diren honetan. Hizkuntza horiek Europako aniztasunaren esparruan duten onarpen sinbolikoa EBko programa operatiboetara hedatzea, batez ere enpleguari, prestakuntzari eta trukeei dagokienez.

**136 /** Hizkuntza- eta kultura-berezitasunak direla eta, Espainiako Estatuaren ordezkartza diplomatikoetan parte hartzea egokitzen jotzen duten gure nazioen presentzia sustatzea.

**137 /** Gure nazioen eskumen-eremuari buruzko gaiak lantzen dituzten Europar Batasuneko organo eta erakundeetan parte hartzea bermatzea. Europar Batasuneko Ministroen Kontseiluetan parte hartzea egokitzen jotzen duten gure nazioetako kideen presentzia defendatzea, eta, horretarako, estatuaren ordezkartzan parte hartzea.

**138 /** Legezko aldaketa egokiak egitea, gure herrialdeetako kirol-selekzio nazionalak nazioarteko lehiaketa ofizialetan parte hartuko dutela bermatzeko.

**139 /** Aurrekontu-baldintza adimendunen printzipioa sustatzea, eta, ildo horretan, Europar Batasuna gaitzea gizarte zibila edo tokiko eta eskualdeko agintariak zuzenean finantzatzeko, baldin eta Batasunak finantza-zehapenak ezartzen badizkio estatu bateko gobernuari zuzenbide-estatu urratzeagatik.

**140 /** Subsidiariorotasun-printzipioa aplikatzen dela bermatzea, Europa mailako jarduna uztarturik egon dadin ekimena bere gain hartu behar duen gobernu-maila identifikatzearekin, dela eskumen formal eskusiboaren bidez, dela eskumen formal partekatuen bidez. Horretarako, gure autogobernu-erakundeei kontsulta egitea aldeztu aurretik, Europako erabaki-prozesuei dagokienez.

**141 /** Subsidiariorotasun-mekanismoa eta subsidiariorotasun-kontsulta erreformatzea eta hobetzea, eta estatu kideen errealitate eta egitura instituzionalera egokitzea. Legegintzako eskumenak dituzten eskualdeen ekarpenak nahitaez sartu behar dira estatuko botere legegileak subsidiariorotasunari buruz emandako txostenetan.

**142 /** Estaturik gabeko nazioek eta konstituzio-eskualdeek parte hartzeko mekanismoak hobetzea, estatu kideen lurralde-antolamendurekin eta -egiturarekin lotura logikoa gordez, gure nazioen eskumen-eremuari eragiten dioten gaiei buruzko Kontseilu Europarraren lantaldeetan edo ministerio-bileretan parte hartzeko.

**143 /** Estaturik gabeko nazioek eta konstituzio-eskualdeek Europar Batasuneko Justizia Auzitegian esku hartzeko duten eskubidea defendatzea, baldin eta Europako erakundeek edo estatu kideek hartutako erabakiek edo neurriek ukitu egiten badituzte gure interesak eta eskumenak.

**144 /** Gure autogobernu-erakundeen partaidetza, esku-hartzea, kudeaketa eta kontrola bermatzea Erkidegoko finantzaketa estrukturalako planak, programak eta tresnak egiteko eta onesteko prozesuetan, gure nazioetako gobernuak gure eskumenen esparruan kudeatzen diren Erkidegoko funtsen hartzaile zuzenak izan daitezzen.

**145 /** Kontrolatzea betetzen direla Europako Suspertze eta Erresilientzia Plana sortzen eta Next Generation Fundsetako baliabideak eraentzen eta banatzen dituen Erregelamenduak zehazturiko baldintzak, eskualdeen partaidetza zehazteko eta emaitzak ebaluatzeko baldintzei dagokienez. Europako funtsak ETEetara errazago eta arinago irits daitezzen sustatzea.

**146 /** Mugaz haraindiko lankidetzaren mekanismoak garrantzitsuak izan behar diren beharrezko esparru juri-

dikoak ezartzea, baita akordio iraunkorrak eta instituzionalak egitea ere, gure autogobernu-erakundeen eskumenekoak diren gai guztietan. Mugaz haraindiko lankidetzaren bultzatzea, batez ere hezkuntzaren eta kulturaren arloetan.

**147 /** Schengen muga-kode berria betetzen dela bermatzea, galarazteko mugako pasabideak ez direla ixten justifikaziorik gabe eta itxiera horren inpaktuari buruzko aurretiazko azterketarik egin gabe —batez ere mugaz gaindiko eskualdeen arteko bizikidetzarako, trukerako eta lankidetzarako erabakigarriak diren mugak, halakoetan bizi baitira 150 milioi europar—.

**148 /** Bermatzea gure nazioetako polizia-kidegoak erabat integratzen direla segurtasun-politiken eta polizia-lankidetzaren esparruan (Europol, Schengen eremua eta datuak trukatzeko protokoloak) Europar Batasunaren eremuan ezarritako erakunde, mekanismo eta estrategietan.

**149 /** Bide berbera planteatzea hizkuntza gutxituetan diharduten komunikabideentzat eta kultura-ekoizpenez. Hizkuntza horiek Europa Sortzailea programarako hauta daitezkeen jardueren artean sartzea, bai eta erakunde komunitarioek kultura-sorkuntzari buruz egiten dituzten deialdi, aintzatespen eta sari guztietan ere.

**150 /** Gure nazioetako ordezkari ofizialen presentzia eta parte-hartzea bermatzea hizkuntza eta kultura arloetako nazioarteko erakundeetan, eta, bereziki, UNESCOn.

---

### **3.4. Europa gero eta indartsuago eta batuago bat, sendoagoa eta askotarikoagoa. Konprometitua bakearekin eta arauetan oinarritutako mundu-ordenarekin**

---

Gizarte bidezko eta seguru bat bultzatzeko oinarria da herrialde behartsuenei itxaropena eta aukerak emango dizkien lehia-gune bidezko bat sortzea, bai arlo ekonomikoan, bai garapen instituzional, sozial eta politikoan. Helburu hori ez da lortu behar Europar soilik, baita nazioarteko harremanen testuinguruan ere, mundu baketsuagoa eta egonkorragoa bermatzeko.

Xede hori lortu ahal izateko, Europaren eginkizunak garrantzitsuak izan behar du gaur egungo hegemonia politikoa, ekonomikoa eta soziala orekatzeari dagokionez. Terrorismoa eta gerra-gatazkak dira desoreka horren ondorio edo adierazpen larrienak, bai eta, segurtasun-arrazoi politikoak edo arrazoi ekonomikoak direla medio, beren jaioterriak uztera behartuta dauden pertsonen mugimendu masiboak ere.



Europa erreferentzia da askatasunen, eskubideen eta gizarte-politikaren arloan, eta, hori hala den heinean, balioa eman behar dio profil horri, nabarmendu egin behar du nortasun-ezaugarri hori eragile global gisa esku hartzen duen jardueretan. Europar Batasunak defentsa- eta segurtasun-politika komunak finkatu behar ditu, eta kanpo-ekintzako zerbitzua garatu. Gainera, jarraipena eta garapena eman behar die legealdi honetan hasitako jardueri, segurtasunerako eta defentsarako gaitasunak garatzeko eta errealtate geoestrategiko berrietara egokitzeko. Amerikako Estatu Batuak jada ez dira "mundu askearen zaindari". Tokiko panorama geoestrategikoan gorabidean dauden beste potentzia batzuk daude, eta egokitu egin behar da Aliantza Atlantikora eta konfigurazio berri horretara. Batasunak bat egin behar du eta eginkizun aktiboa izan behar du arauetan oinarritutako munduko ordena bat defendatzen.

## Europa defendatzea

**151 /** Segurtasun- eta prebentzio-politika erkide bat garatu behar da tokiko eta munduko balizko mehatxuen aurrean, legealdi honetan defentsaren Europan izandako aurrerapenak garatzeko; era berean, sakondu egin behar dira zibererasoetatik, mehatxu hibridoetatik eta hirugarren herrialdeek gure prozesu demokratikoetan esku hartzeko injerentzietatik babesteko eta defendatzeko gaitasunetan.

**152 /** Atzerri- eta segurtasun-politikari buruzko erabakietan ahobatezkotasuna ezabatzea, eta nazioarteko legeriaren urraketen aurrean bake- eta disuasio-tresna diplomatikoak indartzea, hala nola zehapenak eta elkartzeko akordioen berrikuspena.

**153 /** Europako Parlamentua inplikatzeko arauetan oinarritutako munduko ordena defendatzearekin lotutako zeregin guztietan. Europar Batasunak mundu osoan zuzenbide-estatua hobetzeko, demokraziak sendotzeko eta eskubide eta askatasunak defendatzeko mundu zabalean egiten dituen ekarpenei eustea, demokrazia globalaren aldeko taldearen jarduerak, hauteskunde-oharrak eta parlamentuko diplomazia indartuz.

**154 /** Gastu militarra defentsaren arloko eskakizun berrietara egokitzea eta baterako kontratazioa bultzatzea, baliabideen erabilera optimizatzeko. Eraso-arrisku handiena duten mugako herrialdeen defentsa-gaitasunak indartzea. Defentsarako ekipoak erosteko Europako erreferentziak babestea, estatuen arteko elkarreragingarritasun osoarekin eta NATOren arauekin batera.

**155 /** Europar Batasuneko Estatu Nagusia garatzea, eskubide osoko eragiketen kuartel nagusi bihurtzeko, zeina gai izango baita tokian bertan eragiketak koordinatzeko eta planifikatzeko.

**156 /** Material militarra batera eskuratzeko prozesuak koordinatzea eta lankidetzan aritzea, eta, bide horretan, estatu kideen arteko mesfidantzak uxatzea. Jokabide hori erosketen alorreko arau bihurtzea. Europaren defentsa-garapena lehenestea, modu koordinatuan eta inbertsio-premietara egokiturik.

**157 /** Sinergiak sustatzea EBko erabilera bikoitzeko industriaren oinarrian, Europako Defentsa Funtzari dagokionez, inbertsioak optimizatzeko eta sektorean berrikuntza sustatzeko.

**158 /** Ukrainari laguntza militarra ematea Errusiaren eraso-gerrari eusteko. Defentsa-materialaren lagapenean ez ezik, arma estrategikoen eta inteligentzia-operazioen erabilerrari buruzko prestakuntzan eta trebakuntzan ere jarraitzea.

**159 /** Europa Barneko Garraio Sareko mugikortasun militarri buruzko parametroen garapen eta betetze osoa gauzatzea eta, kasuak hala eskatzen duenean, egokitzea. Europako defentsa-aurrekontuaren % 20, gutxienez, ontzigtza-sektorerara bideratzea.

**160 /** Atzerriko potentziek enpresen eta erakundeen aurkako zibererasoen bidez eginiko mehatxu hibridoiei eta injerentzia-saialdiei buruzko inteligentzia-lana integratzea. Ezegonkortze-kanpainak, albiste faltsuak eta bestelako manipulazio-mekanismoak prebenitzea eta horiei aurre egitea.

Horixe da gure ekintza-plana, datozen bost urteetan pertsonekin eta demokraziarekin konprometituz jardungo duen Europa garatzeko. Europa gero eta indartsuago eta batuago bat, indartsuagoa eta askotarikoagoa. Gure ongizateaz arduratuko den Batasuna, eraldatzailea. Lan-prozesu honek pertsonak jartzen ditu ekintza politikoaren erdigunean; herritarrekin garatzeko pentsatuta dago, eta ez herritarrentzat bakarrik. Gizartearen eta haren sektore eta erakundeen entzute aktiboan sakonduko du, baita erakundeen arteko lankidetzan ere; halaxe lortu baitugu Europako legeetan jasotzea Europa Solidarioaren Aldeko Koalizioan (CEUS) elkarturiko alderdiek eta gizarteek eginiko hamaikatzko proposamenen.

Indar Berria  
Europan

